

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Mungiako Udala****Behin betiko onespena emotea taxien Udal Ordenantza arautzailearen aldaketari.**

Udalbatzak 2021ko maiatzaren 28ean egindako Osoko Bilkuran Taxien Udal Ordenantza Arautzailearen testuaren aldaketea hasikera baten onartzea erabagi eban; bertan azaltzen danez, jendaurreko epearen barruan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabagia behin betiko onartuko da.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 artikuluan ezarritakoaren arabera, aldatutako ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2016ko bagilaren 8an; 109 zk.), Udalaren web-orrian eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratu da; eta informazio publiko eta entzunaldiko epea izan dau.

7/1985 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurreko epea amaitu ostean, ikusi da ez dala erreklamaziorik ez iradokizunik azaldu; eta beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituan Legearen 70.2 artikuluari jarraituz (Toki Administrazioa eraberritzeko neurriei buruzko 57/2003 LEGEAK aldatzen dauena), behin betiko onartzen da eta berorren testua osorik argitaratuko da.

Ordenantza hori Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarrita dagoan epea igaro ostean sartuko da indarrean.

Mungian, 2021eko irailaren 3an. — Alkatea, Ager Izagirre

**TAXIEN UDAL ORDENANTZA****1. artikulua**

Indarrean dagoen legediak Udalari ematen dizkion eskumenak erabilia egin da Ordenantza hau. Hona hemen legedi hori osatzen duten legeak eta dekretuak: batetik, Toki Araubideari buruzko legedia; eta bestetik, Ibilgailu arinen Hiri barruko eta Hiriarteko garraio zerbitzuei buruzko Estatu mailako Araudia onartzen duen martxoaren 16ko 763/79 Errege Dekretua.

2. artikulua. — Helburua

Ordenantza honen helburua hauxe da: Mungiako Udalaren taxi-lizentzia erabilia udalerrri honen barruan zein kanpoan zerbitzua eskaintzen duten autoturismoen jarduna arautzea.

3. artikulua. — Udal lizentzia

B kategoriako udal lizentziak «Autoturismoak» udal-erabaki bidez ematen zaizkio eskatzaileari, eskatzailearen beraren izenean eta berak jarduera horretarako erabiliko duen ibilgailu jakin batentzat (marka, modelo eta matrikula zenbakia zehaztuta).

4. artikulua. — Lizentziaren titularra

Zirkulatzeko udal lizentzia lortzeko, ezinbestean bete beharko dira ondoko baldintzak:

- a) Adinez nagusia izatea.
- b) B kategoriako gida-baimena izatea (Trafiko Ordezkaritzak emandakoa).
- c) Jarduera Ekonomikoen zergari dagokion erregistroan alta emanda egotea.
- d) Hurrengo artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen ibilgailu baten jabe izatea.
- e) Dagokion aseguru-poliza formalizatuta izatea, indarrean dagoen Legediak aurreikusten dituen arriskuei aurre egin ahal izateko.

5. artikulua. — Lizentziari lotutako ibilgailua

Ordenantza honek arautuko dituen ibilgailuek ondoko arauak bete beharko dituzte:

- a) Kontserbazio-egoera onean egon beharko dute, bai alde mekanikoari dagokionez eta bai osterantzekoari dagokionez ere (besteak beste, pintura, jesarlekuak, bizkarra jartzekoak...)
- b) Ibilgailuen edukiera, oro har, gutxienez lau plazakoa izango da eta gehienez zazpi plazakoa, gidariarena barne. Plaza kopuruak zirkulazio-baimenean eta Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren txartelean agertu beharko du zehaztuta. Hala ere, egokitutako taxientzako lizentzia bat ere eman ahal izango da, mugitzeko ezintasunen bat duten herritarrei zerbitzua emateko. Kasu horretan, edukiera bederatzi plazaraino handitu daiteke, hori bai, ibilgailuak mugikortasun urria dutenezko plaza bat eduki beharko du prestatuta. Holakoetan, titularrak lortu beharko ditu: batetik, Udalak eman beharreko udal lizentzia, ezinbestekoa; eta bestetik, Foru Aldundiak ematen duen (bera da-eta erakunde eskuduna) Turismo Ibilgailuetan Bidaiariak Hiriartean Garraiatzeko VT baimena.
Plaza kopurua handitzeko, ezinbestekoa izango da indarrean dagoen ibilgailuei buruzko araudia betetzea, eta gainera, handitze horrek ezingo dio eragin ibilgailuaren homologazioari.
- c) S.P. (Zerbitzu Publikoa) letrak dituen plaka erabili beharko dute jarrita.
- d) Su-itxalgailu bat eraman beharko dute.
- e) Kilometro-kontagailua eduki beharko dute, Industriako Ordezkaritzak behar bezala zigilatuta.



- f) Ibilgailuak zuriak izango dira. Aurreko ateen goiko partean 10 zentimetroko zabalera duen zerrenda urdin bat eramango dute, eta bertan, erdi-erdian, Mungiako Udalaren ezkutua estanpatuta.
- g) Aurreko ateen erdian, Udalaren ezkutuaren azpian, ibilgailu bakoitzari dagokion udal-lizentziaren zenbakia agertuko da. Horretarako, 5 zentimetroko altuerako eta proportziozko zabalerako zenbaki urdinak erabiliko dira.
- h) Lizentzien titularrek iragarkiak kontratatu ahal izango dituzte eta atzeko atean jarri, horretarako, plaka magnetikoak edo beste material batzuk erabilia, beti ere, aurretiaz berariazko udal baimena lortuta eta trafiko, zirkulazio eta bide segurtasunari buruzko indarreko legediak ezarritakoa zorrotz beteta.
- i) Taximetroa eta modulu adierazlea izan beharko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lanen Sailburuaren 1990eko urriaren 10eko Aginduak (1990eko azaroaren 2ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 291 zk.) ezarritakoari jarraituta.

6. artikulua. — Okupatu gabe dauden ibilgailuak

Ibilgailu horiek okupatu gabe daudenean, aurreko kristalean 30 x 20 zentimetroko kartela eraman beharko dute. Kartel horretan, tamaina horrekin proportzionatuta, «Taxi Libre» jartzen duen testuak agertu beharko du.

7. artikulua. — Ibilgailua aldatzea

Udal lizentziaren jabeek lizentzia horri lotutako ibilgailua aldatu ahal izango dute, beti ere aurretiaz Udolari baimena eskatuta. Eskari horretan ibilgailu berriaren marka, modelo eta matrikula adierazi beharko dira. Lehengoaren ordezt hartu den ibilgailu horrek egoera onean egon beharko du, hau da, kontserbazio- eta segurtasun-egoera onean, ondo funtzionatu beharko du eta garbi egon. Ordezkapena egin aurretik ibilgailu berri horrek azterketa bat pasatu beharko du eta Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailaren aldeko txostena (IAT) lortu beharko da.

Aldaketa egiteko erabakia istripu edo matxura baten ondorioz hartu bada, ibilgailuaren titularrak antzeko ezaugarriak dituen ibilgailu baten bidez jarraitu ahal izango du zerbitzua eskaintzen konponketa-lanek irauten duten bitartean. Hori bai, auto horrek bete egin beharko ditu Ordenantza honek taxi-zerbitzua eskaintzeko ezartzen dituen baldintzak, eta Udalaren baimena lortu beharko du titularrak. Era berean, zerbitzua berriro ere istripua edo matxura izan duen ibilgailuaren bidez ematen hasi aurretik, Udolari eman beharko zaio horren berri.

8. artikulua. — Lizentzia eskualdatzea

Lizentziak ondoko kasuetan eskualdatu ahal izango dira:

- a) Titularra hiltzen bada (alargunari edo legezko oinordekoei pasatuko zaie lizentzia) edo jubilatzen bada.
Alargunak, legezko oinordekoak edo jubilatu den horrek ezin badu jarduera hori jarduera bakar eta eskusibo modura ustiatu, 4. artikuluko baldintzak betetzen dituen pertsona bati eskualdatu ahal izango zaio lizentzia, Udalak aurretiaz baimena emanda.
Hiru (3) hilabeteko epean titularrak edo legezko oinordekoek eskualdatze-eskubide hori erabili ezean, eskubidea galdu egingo dute eta Udalaren esku geldituko da.
- b) Gaixotasuna, istripua edo ezinbesteko beste arrazoiren bat dela-eta titularra lan-biderako ezindua gelditzen bada. Holakoetan, 4. artikuluko baldintzak betetzen dituen pertsona bati eskualdatu ahal izango zaio lizentzia, Udalak aurretiaz baimena emanda.
- c) Lizentziaren titulartasunak 5 urte baino gehiago baditu. Holakoetan, 4. artikuluko baldintzak betetzen dituen pertsona bati eskualdatu ahal izango zaio lizentzia, Udalak aurretiaz baimena emanda. Hori bai, jatorrizko titular horrek ezingo du udal honen beste taxi-titulartasunik lortu 10 urteko epean, ordenantza honek



ezarritako arauei jarraituta; eta titulartasun hori jasotzen duenak ere ezingo du eskualdatu artikulu honetako kasuren bat gertatu ezean.

- d) Eskualdatutako lizentziari lotuta dagoen ibilgailua lehengo bera izan daiteke, baldin eta lizentzia jasotzen duen pertsona horrek ibilgailua ere jaso badu. Titular berriak lizentzia horren zerbitzua gauzatzeko beste ibilgailu bat erabiliko badu, ibilgailu horrek 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

9. artikulua.— Titulartasuna eskualdatzea

Titulartasuna eskualdatzeak lizentzia eguneratzea ekarriko du, hau da, lizentzia horrek titular berria edukiko du eta berari lotutako ibilgailua lehengoa edo beste bat izango da.

Edozein kasutan ere, hau da, titulartasunaren eskualdaketa edozein eratakoa dela ere, Udalari eskatu beharko zaio, batetik, baimena bera eman dezala, eta bestetik, taxi-lizentzien Erregistroan edo Fitxategian aldaketa hori erregistra dezala (izan ere, erregistro edo fitxategi horretan jaso beharko ditu Udalak gidari titularren eta euron ibilgailuen gaineko gorabehera guztiak).

Udalak ondoko hogeita hamar egunen barruan (udal baimena ematen duen agiria sinatu ondoko hogeita hamar egunetan) emango dio taxi-gidarien taldeari eskualdaketa horren berri.

10. artikulua.— Lizentziei zenbakia ematea

Udal lizentzien zenbakiak antzinatasun-ordenan emango dira. Titulartasuna eskualdatzen denean, titular berriak jatorrizko titularrari zegokion lizentzia-zenbakia jasoko du.

Taxi-lizentzien kopurua aldatu ahal izango da –udal erabaki bidez– herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu horren beharizanen eta egokitasunaren arabera.

11. artikulua.— Lizentziak erregistratzea

Emandako lizentzien erregistro bat osatu beharko du Udalak. Erregistro horretan taxi-lizentzien inguruan gertatzen diren gorabehera guztiak jaso beharko ditu, kasurako, euren titulartasuna, lizentziari lotutako ibilgailua zein den eta interesgarria izan daitekeen beste edozein datu.

Beste datu batzuk gorabehera, hauexek dira erregistro horretan agertu beharreko datuak:

- a) Titularraren izen-abizenak, lizentzia zenbakia eta nortasun agiriaren fotokopia.
- b) Jakinarazpenetarako erabiliko den helbidea eta telefono zenbakia.
- c) Jardueraren hasiera- eta amaiera-data.
- d) Lizentziari lotutako ibilgailua (matrikula eta marka) eta zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- e) Interesgarri diren beste datu batzuk.

Erregistroan agertzen diren datuak publikoak izango dira, une horretan aplikagarria den legediak ezartzen dituen baldintzak eta mugak kontuan hartuta.

Lizentziaren titularrak ibilgailuan erabili beharko du beti bere lizentzia-ebazpena (jatorrizko agiria edo kopia).

12. artikulua.— Geltokia

Lizentziadun titularrek derrigorrean joan beharko dute Zubiaga kalean dagoen geltokira euren zerbitzua eskaintzeko, eta euren ordutegiak adostu egin beharko dituzte geltoki horrek une oro behar bezalako arreta eskaini dezan.

Udalak eskumena izango du geltoki bakar horren kokalekua aldatzeko, beti ere, beharrezkoa iruditzen bazaio.

Ibilgailuek duten kokapen-ordenaren arabera eskainiko da zerbitzua, hau da, datorren bezero edo erabiltzaileari ilararen lehenengo postuan dagoen taxiak eskainiko



dio zerbitzua. Taxi-gidariak ezezkoa ematen badio erabiltzaileari, galdu egingo du bere lehentasuna eta ilararen azken postuan jarri beharko du.

Taxi-zerbitzurako erabiliko den telefono bat egongo da geltokian. Taxi-gidariak ezingo dute telefona euren kontu pertsonaletarako erabili, eta jotzen duen bakoitzean une horretan ilaran lehenengo dagoen taxi-gidariak hartu beharko du.

13. artikulua.— Dokumentazioa

Gidariak, zerbitzua eskaintzen duten bitartean, ondoko agiriak eraman beharko dituzte ibilgailuan:

- A) Autoari dagozkionak:
 - Lizenzia.
 - Ibilgailuaren udal lizenziaren zenbakia adierazten duen plaka.
 - Ibilgailuaren plaza-kopurua adierazten duen zenbakia.
 - Ibilgailuaren zirkulazio-baimena.
 - Indarrean dauden aseguru-polizak.
 - Garraio-txartela.
- B) Udal honek baimendutako ordainagirien taloitegiak (ordaindutako guztirakoa agertuko da eurotan). Erabiltzaileek eskubidea izango dute taloitegi horiek eskatzeko, eta aztertu egingo dira aldian-aldian egingo diren ikuskapenetan.
- C) Indarrean dagoen tarifaren gaineko informazio-orria (ale ofizial bat).

14. artikulua.— Zerbitzua emateko modua

Taxi-gidariak gizalegez hartuko dituzte erabiltzaileak, hau da, jarrera egokia izango dute eurekin, eta ezingo diote inori zerbitzua ukatu arrazoi justifikaturik egon ezean.

Erabiltzaileek ezingo dute taxia aukeratu, geltokiko ilaran lehenengo dagoen taxira jo beharko dute derrigorrean.

15. artikulua.— Tarifak

Aplikaturik diren tarifei buruzko informazioa erabiltzaileek ondo ikusteko moduko lekuan jarriko da, auto barruan. Informazio ohar horretan, ohiko tarifez gain, zerbitzu jakin batzuei dagozkien osagarriak eta tarifa bereziak ere agertuko dira.

Ezarrirako tarifa horiek izango dira titularrek aplikatu eta erabiltzaileek ordaindu beharko dituztenak.

16. artikulua.— Ibilgailuak ikuskatzea

Ez zaio inongo ibilgailuri zerbitzua emateko baimenik emango, harik eta ibilgailu hori segurtasun- eta kontserbazio-egoera onean dagoela egiaztatzen duen Industriako Ordezkaritzaren dokumentazioa Udalean aurkeztuta egon arte.

Ikuskaritza-lan horiek urtean behin egingo dira, hala ere, gehiagotan egitea erabaki liteke.

17. artikulua.— Lizenziak iraungitzea eta bertan behera uztea

Jabeak uko egiten diolako iraungitzen da lizenzia. Horretaz gain, Udalak lizenziak bertan behera uzteko eta, beraz, erretiratzeko aukera izango du arrazoi jakin batzuk tarteko direnean. Hona hemen lizenziak bertan behera uzteko arrazoiak:

- a) 30 egunean (jarraian) edo 60 egunean (ez jarraian) zerbitzurik ez ematea, salbu eta bidezko arrazoiren bat egon dela idatziz egiaztatzen bazaio Udalari. Aipatutako arrazoi horietako bat oporraldia izango da, hori bai, lizenzien jabeen ehuneko 10etik gora ezingo da aldi berean oporretan egon.
- b) Lizenziaren titularrak aseguru-poliza indarrean ez izatea.
- c) 16. artikuluan ezarrirako aldizkako ikuskapena behin baino gehiagotan egin barik izatea.



- d) Lizentziak alokatzea edo ahalordetzea, baldin eta ordenantza honek baimentzen ez duen lizentzia-ustiapena badakar; eta ordenantza honek baimentzen ez dituen lizentzien eskualdatzeak egitea.
- e) Lizentziari lotutako betebeharrak eta ibilgailuaren jabetzari lotutako gainerako ezarpenak ez betetzea.

18. artikulua.— Ordenantza betetzea

Dagokion legediak arautzen dituen lan-baldintzez gain, ordenantza honen eraginpean dauden gidariek ordenantza honetan ezarritakoa ere zorrotz bete behako dute.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, lehendik taxi-lizentzia baten jabe diren titularrek urtebeteko epea izango dute bertan ezarritako xedapenetara egokitzeko. Ibilgailuak zuriak izateko betebeharra, hurrengo ibilgailua erosten dutenetik edo lehendik duten ibilgailua berriro pintatzen dutenetik gora bete beharko dute.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek beren beregi aurreikusten eta arautzen ez dituen egoera eta kasuetarako, ondoko legedia aplikatuko da: 2/2000 Legea, ekainaren 29koa, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duena; 243/2002 Dekretua, urriaren 15ekoa, Legearen Erregelamendua onartzen duena; indarrean dauden gainerako lege xedapenak; eta etorkizunean onar daitezkeen lege xedapen osagarriak.